

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren 311/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa, 2020-2021 urteetarako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko Laudioko Udalak eskatutako laguntza-lerroaren justifikazio-agiriak aurkezteko epea luzatzea onartzen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 139/2020 Erabakiak onespena eman zion Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez araututako energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2020-2021rako deialdiari. Urriaren 13ko 475/2020 Foru Erabakiaren bidez ebatzi zen laguntza horien esleipena.

Ondoren, Arabako lehen diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren 256/2021 Foru Aginduaren bidez, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren jarduneko eginkizunetan, irailaren 27an hura ez zegoelako, onespena eman zitzaion 2021eko azaroaren 5era arte luzatzeari 2020-2021 urterokoetarako jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzak sustatzeko eta Laudioko Udalak eskatutako laguntza lerroaren justifikazio agiriak aurkezteko epea.

Laudioko Udalari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana idazteko, udalerrian joan-etorrietarako modu jasangarriagoak sustatzeko. Dirulaguntza 2021 urterako esleitu zen.

2021eko urriaren 25ean, Laudioko Udalak idazkia bidali zuen eskatuz bigarren aldiz luzatzeko abenduaren 23ra arte dirulaguntza justifikatzeko gehieneko epea, arrazoi hauengatik:

...Azken hilabeteotan, planean sartu beharreko neurriak definitzen ari dira, haietako asko udalerriko mugikortasun dinamikak eraldatzeko, eta, beraz, baita planaren hirigintza eta hiri konfiguraziorako ere. Neurri horien ondorioz, eragile gehiagok sakonago hausnartu eta inplikatu behar izan dute erabakiak hartzeko prozesuan, eta, horren ondorioz, gehiago iraun du HMJPa egiteko prozesuaren azken fase honek.

Horregatik, onartu egingo da Laudioko Udalak egin duen eskaera 2021eko abenduaren 23ra arte luzatzeko 2021eko urteroko diruz lagun daitekeen jarduketaren ordainketa justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko epea.

Hori dela eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2021eko abenduaren 23ra arte luzatzeari jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako laguntza lerroaren 2020-2021 urterokoetarako justifikazio agiriak aurkezteko epea, Laudioko Udalak hala eskatuta.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA